

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

**ZIURTATZEN DOT:**

2009ko apirilaren 29an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

**17.- AREILZA LOKALEKO GARBIKETA ZERBITZUKO ALDAGELAK EGOKITZEKO OBREA BEHIN BETIKO ESLEITZEA.**

**Xedea**

Areilza lokaleko garbiketa zerbitzuko aldagelak egokitzeko obrea behin betiko esleitzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: Estatuko Gobernuak, zemendiaren 28ko 9/2008 Errege Dekretu Legegilearen bidez, udal aurrekontuetan agertzen ez diran obrak egiteko laguntza bat emoten dau. 2009ko zezeilaren 13ko erabagiaren bidez, besteak beste, obra hau egiteko laguntzea emon da.

Bigarrena: 2009ko martiaren 4an izandako batzarrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, obra honen baldintza-agiriak onartzea eta deialdia zabaltzea erabagi eban, eta hutsik deklarau zan, 2009ko apirilaren 1ean Tokiko Gobernu Batzarrak izandako batzarrean.

Hirugarrena: Apirilaren 1eko batzarrean, hutsik deklarau ez eze, deialdia barriro kaleratzea erabagi zan eta, prozedura negoziatuaren bidez 3 enpresa gonbidatu ziran eskaintzak aurkezteko.

Laugarrena: Behin prozedura izapidetu ondoren, 2009ko apirilaren 8ko Tokiko Gobernu Batzarrean, obrea behin-behingo esleitzea erabagi zan.

Bosgarrena: 2009ko apirilaren 22an behin-behineko esleipena kontratugilearen profilean argitaratu zan.

**Argudioak**

Bakarra: Behin-behineko esleipenaren iragarkia legeak agintzen dauen denporan egon da iragarrita eta, epe horretan, ez da alegaziorik ez erreklamaziorik jaso.

Bestalde, behin-behinekoz proposatutako esleipendunak, emondako epearen barruan bete dauz bere eginbeharrak eta, ondorioz, legezko urrats guztiak bete dira, behin-behineko esleipena behin betiko bihurtzeko

## **Erabagia**

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: Areilza lokaleko garbiketa zerbitzuko aldagelak egokitzeko obrea behin betiko esleitzea, era honetan:

- ENPRESEA: CONSTRUCCIONES ANTONIO HIDALGO (IFZ: 76185237-Z).
- PREZIOA: 62.379,90 €, BEZ barik, BEZa: 9.980,78 €, DANERA: 72.360,68 €.
- EXEKUZINO EPEA: 80 egun.
- OBRA HONETAN LAN EGINGO DABEN LANGILEAK: 4 langile, horreetatik 1 langabeziatik kontratautakoa izango da.
- Kontratuan jaso beharko dira enpreseak aurkeztutako hobekuntza guztiak.
- Esleipendunari jakinarazotea, 10 laneguneko epean, kontratua sinatu beharko dauela eta, holan egin ezean, udalak kontratua bertan behera itxi ahal izango dauela.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2009ko maiatzaren 5ean.

ONETSIA  
ALKATEA